“Getxo Kirolak” tokiko erakunde autonomoaren helburua da:

- a) Getxoko Udalak esleitzen dizkion kirol ekipamendu, azpiegitura eta instalazio guztiak kudeatzea, antolatzea eta haien funtzionamendua.
- b) Kirola eta kirol-lehiaketa sustatzea eta bultzatzea, eta kultura fisikoa garatzea, osasunaren eta jostetaren kultura garatzea, eta bere eskumeneko bestelako jarduerak egitea.

Musika Eskola erakunde autonomoa

Getxoko "Andrés Isasi Udal Musika Eskola" tokiko erakunde autonomoa Getxoko Udalak sortu zuen 1986ko irailaren 24an.

Getxoko “Andrés Isasi Udal Musika Eskolaren” helburua da:

- a) Getxo udalerrian musika kultura zuzpertztea eta bultzatzea.
- b) Musikaren inguruko bestelako erakundeekin batera jardutea, musika hedatzeko eta musikarenganako zaletasuna zabaltzeko lanetan.
- c) Sor litezkeen musikari gazteak hezteak. Unean uneko baliabideen arabera lagunduko die.
- d) Helburu orokor horren barruan lan interesgarria egiten duten edo asmo hori duten musika taldeei eta abesbatzei laguntzea.
- e) Musikaren mesedetan ahal beste jarduera antolatzea.

Udal Egoitza erakunde autonomoa

Udalak, 1968ko irailaren 28an osoko bilkuran, Laguntza Zerbitzuko Fundazio Publikoa sortu zuen, Getxoko Jesusen Bihotzaren Udal Egoitza ezagutuz eta izaera juridikoa emanez. Egoitzaren estatutuen jatorrizko testua 1969ko ekainaren 3an osoko bilkuran onetsi ziren behinbetiko.

Erakundearen oinarrizko helburua da adinekoen bizitegi-beharrari erantzutea, baldin eta gaiari buruz onetsitako baldintzak beteta, udal-egoitzan onartzen bazaie. Bide horretatik, bizikidetzagiro egokia ematen zaie adinekoei beren garapen pertsonalerako, eta, xede horrez, ongizate fisikoa, psikikoa eta soziala mantentzen eta hobetzen laguntzen zaie, gizarte-bizitzan sartzea eta parte hartzea sustatzeaz gain.

El Abra Getxo Kirol Portua SA sozietatea

El Abra-Getxo Kirol Portua SA sozietatea sozietate anonimo gisa sortu zen 1992ko abenduaren 29an Getxoko Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kapital publikoari esker.

Sozietatearen helburuak dira kirol-portuak planifikatzea, sustatzea, garatzea eta ustiatzea berez emakidadun gisa edo hirugarrenei dagozkien eskubideak lagaz.

Bilboko Portuko Agintaritzak enpresari eman zion hogeita hamar urterako beharrezko administrazio-emakida 1994ko abenduaren 22an Getxoko kirol-portua eraiki eta ustiatzeko, eta urteko kanona ordaintzea da kontraprestazio ekonomikoa. Erakundeak 2040ko urtarrilaren 4ra arte luzatu du emakida.

Gaur egun, El Abra-Getxo Kirol Portua SA Getxoko Udalaren mendeko sozietatea da, Getxoko Udalak berak baititu boto-eskubide gehienak enpresan.

Punta Begoña Fundazioa

Punta Begoña Fundazioa Getxoko Udalak sortu zuen 2020ko martxoaren 12an, eta Euskal Herriko Fundazioen Erregistro Orokorrean inskribatu zen 2020ko abenduaren 29an.

Punta Begoña Fundazioak interes orokorreko honako helburu hauek ditu:

- a) Ondarea eta aberastasun historiko-artistikoa ikertu eta aztertzea Getxo udalerrian, arreta berezia jarriz Punta Begoñako multzoari.
- b) Ondasun bereziak babestu, kontserbatu, mantendu, birgaitu eta zaharberritzea, baldin eta Getxo udalerriko ondare historiko-artistikoaren barruan badaude, eta jarduketa zehatzak behar badituzte balioa emateko; bereziki erreparatuko zaie Punta Begoñako multzoa osatzen dutenei.
- c) Jarduera jasagarriak gara daitezen sustatzea Punta Begoñako multzoak duen ahalmena identifikatzeko.
- d) Kontzientziatzen eta herritarren harrotasuna sustatzen laguntzea Punta Begoñako multzoak eta Getxo udalerriko kultur ondareak bere osotasunean duen balio historiko-artistikoari dagokionez.
- e) Eredu bat antolatzea ondarea kudeatzeko udalerriko aintzatespen- eta nortasun-elementu bihur dadin eta, gainera, kanpoko proiektuetan aplikatzeko transferentzia-aukera izan dezan egindako inbertsio publikoa itzultzeko gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik.

c) Baterakuntzan sartzeko entitateak.

Honako entitate hauek osatzen dituzte urteko kontu bateratu hauek:

- Getxoko Udala
- Kultur Etxea erakunde autonomoa
- Getxo Kirolak erakunde autonomoa
- Musika Eskola erakunde autonomoa
- Udal Egoitza erakunde autonomoa

Integrazio orokorra aplikatu da erakunde hauentzat bateratze-metodo gisa. Tokiko sektore publikoaren urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak onesten dituen 138/2022 Foru Dekretuaren 2. artikulua xedatutakoaren arabera, udalak zuzenduko ditu politika finantzarioak eta jarduera mendeko entitate guztietan etekin ekonomikoak edo zerbitzuen etekin potentziala lortzeko.

Erantsi diren urteko kontu bateratuak bateratzera behartuta dagoen entitatearen urteko kontuen data eta epealdi bererako dira.

Taldeko entitate guztiek urteko kontu bateratuen data berdinean ixten dute ekitaldia.

Erantsi diren finantza-egoera bateratuetan saldo eta transakzio guztiak kendu dira, baldin eta taldeko entitateen artean gertatu badira.

d) Baterakuntzatik baztertze entitateak.

Bateratzetik kanpo gelditu dira honako entitate hauek:

- El Abra Getxo Kirol Portua SA sozietatea
- Punta Begoña Fundazioa

138/2022 Foru Dekretuaren 8. artikulua xedatutakoaren arabera, bateratzetik kanpo gelditzen dira bi erakundeak; batera kontuan hartuta, ez baitute interes esanguratsurik urteko kontu bateratuen irudi leiala izateko.

Entitate baztertuek honako ondare-informazio hau dute:

Mendeko entitateak	Fundazioko kapitala/zuzkidura	Erreserbak	Aurreko ekit. emait.	Ekitaldiko emait.	Atxikitako ondarea	Part. %
El Abra Getxo Kirol Portua SA sozietatea	240.400 €	130.600 €	-49.654 €	12.469 €		% 66,75
Punta Begoña Fundazioa	17.687 €		-25 €		4.954.371 €	% 100,00

Ekitaldiko ustiapen-gastuei buruzko informazioa:

Galdu-irabazien kontuko epigrafea	El Abra Getxo Kirol Portua SA sozietatea	Punta Begoña Fundazioa	Guztira
Langileen gastuak	101.638 €	119.663 €	221.301 €
Ustiapenaren beste gastu batzuk	297.600 €	635.533 €	933.133 €
Ibilgetuaren amortizazioa	774.784 €	94.674 €	869.458 €
Guztira	1.174.022 €	849.870 €	2.023.892 €

e) Taldeko entitateen interes adierazgarria.

Interes esanguratsuaren magnitude adierazgarritzat jotzen da honakoa:

- Sektore publikoko entitateetan administrazio-jarduerak egiten dira:
 - gastuen aurrekontua mugatzailea bada: onartutako obligazio garbien zenbateko osoa.

- gastuen aurrekontua mugatzailea ez bada: onartutako hartzekodunen zenbateko osoa jardueraren ondoriozko eragiketak direla eta.
- Sektore publikoko entitateetan enpresa-jarduerak egiten dira: ustiapen gastuen zenbatekoa ekitaldian.
- Sektore publikoko fundazioetan: ekitaldiko gastuen zenbatekoa berezko jardueraren eta merkataritza-jardueraren ondorioz.

Kirol Portua Sozietatean eta Punta Begoña Fundazioan, ustiapen gastua bateratutako osoaren gainean 129.157.665 eurokoa da guztira, hau da, % 1,5.

2.ALDE ANITZEKO ENTITATEAK ETA ENTITATE ELKARTUAK.

Ez dago talde anitzeko entitateak eta entitate elkartuak.

3.ENTITATEEN AZPITALDEEI BURUZKO INFORMAZIOA

Ez dago entitateen azpitaldeei buruzko informazioa.

4.URTEKO KONTU BATERATUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Irudi leiala

2024ko ekitaldiko urteko kontu bateratu hauek Getxoko Udalak egin ditu 2024ko abenduaren 31n mendeko entitateek zituzten kontabilitate erregistroen arabera, eta aplikatu diren kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak honako araudi hauetan daude: 139/2015 Foru Dekretua, Bizkaiko toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena; 138/2022 Foru Dekretua, Bizkaiko toki sektore publikoan urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak onesten dituena; 1515/2007 Errege Dekretua, ETE-en kontabilitate-plan orokorra onesten duena; 1491/2011 Errege Dekretua, arauak ematen dituena kontabilitate-plan orokorra irabazi-asmorik gabeko entitateei egokitzeko; eta gainerako lege-xedapenak kontabilitatearen arloan indarrean badaude. Hala, taldearen irudi leiala ematen dute ondare eta finantza-egoera bateratuei buruz 2024ko abenduaren 31n, bai eta eragiketen emaitza, ondare garbian izandako aldaketa eta eskudiruaren fluxu bateratuei buruz ere data horretan amaitu den ekitaldian.

Urteko kontu hauek egiteko aplikatu diren kontabilitate-irizpideak eta -printzipioak memoriaren 5. oharrean zehazten dira. Nahitaezko kontabilitate-printzipio guztiak aplikatu dira kontu hauetan baldin eta ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan eragin badute.

b) Informazioa alderatzea

2024. urteko zenbatekoak ezin daitezke aurreko urtekoekin alderatu, 138/2022 Foru Dekretua 2024ko urtarrilaren 1az gero aplikatu behar baita. Horregatik, finantza-egoerak bakarrik 2024ko ekitaldiko informazioa du.

c) Aldaketak kontabilizatzeko eta akatsak zuzentzeko irizpideetan

2024ko ekitaldian zehar, kontabilitate-irizpideak ez dira modu esanguratsuan aldatu aurreko urtean aplikatu ziren irizpideak kontuan hartu gero.

d) Kontabilitateko zenbatespenak

Urteko kontuan prestatzean, noizean behin, estimazioak erabili dira zenbait aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromiso kuantifikatzeko. Estimazio horiek, batez ere, honako arlo hauetan egin dira: material ibilgetuko aktiboen bititza erabilgarria eta balio berreskuragarria, erantzukizunetarako hornidura eta kobratu behar diren zenbait konturen balizko narriadura. Estimazio horiek urteko kontuak formulatzeko datan informazio eskuragarri onenaren oinarripean egin arren, baliteke etorkizunean, hurrengo ekitaldiei begira, izan daitezkeen gertaerek aldatzera behartzea (gorantz edo beherantz). Dena den, hori modu prospektiboan egingo litzateke, eta aldatzeko estimazioa etorkizuneko galdu-irabazien kontuetan onetsiko litzateke. Entitatearen zuzendaritzak ez du ziurgabetasun garrantzitsu baten berri jarduera ohiz garatzeko zalantza esanguratsuak sortzen dituenik, beraz, urteko kontuak prestatu direnean onartu da jarduerak aurrera egingo dutela, eta funtzionatzen ari den enpresaren printzipioari erreparatu diote.

2024ko ekitaldian zehar, ez da aldaketa esanguratsurik izan kontabilitate-estimazioetan aurreko ekitaldian aplikatu zirenekin erkatzen badira.

5.KONTABILIZAZIO ETA BALIOESPEN ARAUAK

1) Baterakuntzarako merkataritza funtza eta diferentzia negatiboa.

Eskuratze-datan edo, hala badagokio, urteko kontu bateratuak formulatzen diren lehen ekitaldiko hasierako datan, lehenengo bateratzearen aldea, positiboa edo negatiboa, honako hauen artekoa da:

- Entitate nagusiaren partaidetzaren kontabilitate-balioa mendeko entitatearen kapitalean edo ondarean, zuzenean edo zeharka.
- Ondare garbiaren zati proportzionala, partaidetza adierazten duena mendeko entitatearen kapitalean edo ondarean eskuratze-datan.

Bateratzearen aldea positiboa denean, kontu bateratuak formulatzeko baino ez, zuzenean egotziko zaie mendeko entitatearen ondare-elementuei ahal den neurrian. Ildo horri eutsiz, aktiboen balioa gehituko da, edo pasiboena murriztu, betiere ondare-elementuaren kontabilitate-balioaren eta lehenengo bateratze-datan arrazoizko balioaren arteko aldetik mendeko erakundeari egotzi dakioken mugara arte, mendeko erakundearen ondarean edo kapital sozialean duen partaidetza-ehunekoaren arabera kalkulatuta.

Bateratzearen aldea negatiboa denean, kontu bateratuak formulatzeko baino ez, zuzenean egotziko zaie mendeko entitatearen ondare-elementuei ahal

den neurrian. Ildo horri eutsiz, pasiboen balioa gehituko da, edo aktiboena murriztu, betiere ondare-elementuaren kontabilitate-balioaren eta lehenengo bateratze-datan arrazoizko balioaren arteko aldetik mendeko erakundeari egotzi dakioken mugara arte mendeko erakundearen ondarean edo kapital sozialean duen partaidetza-ehunekoaren arabera.

Aurreko ataletan xedatutakoa aplikatu ondoren, lehen bateratzearen aldeari eusten bazaio, bateratzearen merkataritza-funtsa edo bateratzearen alde negatiboa izango da dagokionaren arabera.

Bateratzearen merkataritza-funtsa aktiboaren errubrika batean inskribatuko da bateratutako balantzearen barruan.

Hasieran onartu ondoren, bateratzearen merkataritza-funtsa eskuratze-prezioaren baitan baloratuko da, baina kenduko zaio amortizazio metatua eta, hala badagokio, narriaduragatiko balorazioa zuzentzeko zenbateko metatua ere bai.

Merkataritza-funtsa bititza erabilgarri jakineko aktibo bat da, beraz, amortizatu beharko da epealdi horretan. Kontrakoa frogatu ezean, aurreikusiko da bititza erabilgarria hamar urtekoa dela eta linealki berreskuratuko dela.

Bateratzearen alde negatiboa "bateratutako entitateen bateratze-alde negatiboa" 18 partidaren emaitza positibo gisa onetsiko da ondare-emaitza ekonomiko bateratuaren kontuan.

2) *Bateratze perimetroan sartutako entitateen arteko transakzioak.*

Talde barneko partidak ezabatzea

Oso-osorik ezabatuko dira talde barneko partidak urteko kontu bateratuetan, homogeneizazioaren arabera, dagozkion doikuntzak egiten direnean.

Talde barneko partidatzat jotzen dira kredituak eta zorrak, diru-sarrerak eta gastuak eta eskudiruaren fluxuak taldeko sozietateen artean.

Barneko eragiketengatiko emaitzak ezabatzea

Barneko eragiketatzat jotzen dira taldeko bi sozietateen artekoak bi sozietateak taldean sartu zirenetik. Emaitzat joko dira galdu-irabazien kontuan daudenak eta zuzenean ondare garbiari egotzitako diru-sarrerak eta gastuak kontabilitate-plan orokorrean aurrez ikusitakoari jarraikiz.

Barneko eragiketengatiko emaitza osoa ezabatuko da, eta geroratu egingo da taldetik kanpo gelditzen diren hirugarrenen aurrean egin arte. Geroratuko

diren emaitzak ekitaldiari eta aurreko ekitaldiei dagozkie, bigarren kasuan, eskuratze-datatik zenbatzen hasita.

Hala eta guztiz ere, barneko eragiketetan galerak badaude, baliteke balioa narriatuta egotea, eta, orduan, urteko kontu bateratuetan onetsi beharko litzateke. Modu berean, barneko transakzioetan izandako mozkinak adieraz dezake transakzioaren xede den aktiboaren balioaren narriadura berreskuratzen ari dela, aurretiaz erregistratu ostean. Halakoetan, bi kontzeptuak azalduko dira urteko kontu bateratuetan izaerarekin bat etorritz.

Hirugarrenak bere izenean edo taldeko sozietate baten kontura jarduten duenean aplikatuko da aurretik aipatu den guztia.

Hirugarrenen emaitzak direnean, emaitza horiek galdu-irabaziaren kontuari edo, hala badagokio, diru-sarrera eta gastu onartuen egoera bateratuari egotziko zaizkio dagozkien partidetan zenbatekoa gutxituta edo gehituta.

Urteko kontu bateratuak formulatzeko, ondare-elementuren bati balioa doitzen bazaio, amortizazioa, narriaduragatiko galerak eta besterentzearen edo balantzean baja ematearen emaitzak doitutako balioaren oinarriaren gainean kalkulatuko dira urteko kontu bateratuetan.

Narriaduragatiko galerak ezabatuko dira urteko kontu bateratuetatik baldin eta aktiboaren elementuei badagozkie, eta barneko eragiketengatiko emaitzetatik kendu badira. Horrez gain, bermeen edo antzekoen ondoriozko hornidurak ezabatuko dira, taldeko beste entitate batzuen alde ezarriz gero. Biak ezabatzen direnean, emaitzak doitu beharko dira.

Barneko eragiketengatiko emaitzak ekitaldian ezabatzen direnean, emaitza bateratuen kopuruari edo ondare garbiari zuzenean egotzitako diru-sarreraren eta gastuen zenbateko osoari eragingo dio; bien bitartean, aurreko ekitaldietatik kentzen direnean barneko eragiketengatiko emaitzak, ondare garbiaren zenbatekoa aldatuko da, eta honako hauei eragingo die: erreserbei, balioa aldatzeagatiko doikuntzei edo jaso diren dirulaguntza, dohaintza eta legatuei, galdu-irabazien kontu bateratuan egozteke badaude.

Emaitzak, ondare garbiari zuzenean egotzitako galdu-irabaziak eta ondare garbiaren beste partida batzuk doitu behar direnean, ondarea besterendu edo zerbitzua ematen duen sozietateari eragingo dio, eta, beraz, sozietatearen kanpoko bazkideen zenbatekoari dagokienaren arabera.

Taldearen ikuspegitik sailkatuko dira ondare-elementuak, diru-sarrerak, gastuak eta eskudiruaren fluxuak, barneko eragiketek aldatu gabe. Barneko eragiketa afektazioa aldatzearekin bat datorrenean taldearen ikuspegitik, kontabilitate-plan orokorrak ezartzen duen arauaren arabera islatuko da afektazioaren aldaketa hori urteko kontu bateratuetan.

3) Ibilgetu materiala.

Hasiera batean, eskuratze-prezioari edo, bidezkoa bada, ekoizpen-kostuari jarraikiz baloratuko da ibilgetu materiala.

Eskuratze-prezioa.

Honako osagai hauek ditu: erosketa-prezioa, eskuratzeko inportazioaren muga-zergak eta berreskura ezin daitezkeen zeharkako zergak barne; eta beste edozein kostu, zerbitzua erostearekin edo zerbitzua erabiltzeko abian jartzearekin zuzeneko lotura badu. Elementuaren prezioetik edozein deskontu edo beherapen mota kenduko da.

Zerbitzua erostearekin edo abian jartzearekin lotutako zuzeneko kostuak dira, besteak beste, honako hauek:

1. Kokapen fisikoa prestatzeari buruzkoak.
2. Hasieran emateari dagozkionak eta manipulatzearekin edo ondoren garraiatzearekin lotutakoak.
3. Instalatzeari buruzkoak.
4. Zerbitzu-sari profesionalak, hala nola arkitektura, ingeniaritza edo fede publikoaren zerbitzuengatik ordaindutakoak, bai eta komisioak eta ordainsariak eragileentzat edo bitartekari entzat ere.
5. Aktiboa suntsitzeko eta kokagunea lehengoratzeko kostu zenbatetsiaren oraingo balioa, hornidura onesten den neurrian.
6. Ez dira finantza-gastuak aktibatuko.

Ekoizpen-kostua.

Aktibo bat entitateak berak fabrikatu edo eraikitzen duenean, ekoizpen-kostua zehazteko, aktiboen eskuratze-prezioari aplikatzen zaizkion printzipio berak erabiliko dira.

Kostua lortzeko, lehengaien eta kontsumitutako beste material batzuen eskuratze-prezioari gehituko zaizkio ondasuna fabrikatzeari edo egiteari zuzenean egotz dakizkion gainerako kostuak, zuzenean identifikatzeko irizpidea aplikatuz edo, halakorik ezean, batez besteko kostu haztatua edo FIFO aplikatuz. Horrez gain, fabrikazioarekin edo egitearekin zerikusia duten zeharkako kostuen arrazoizko zatia erantsiko zaio. Ez dira finantza-gastuak aktibatuko.

Ondorengo ordainketak.

Hasierako erregistroaren ondorengo ordainketak kontabilitate-balioaren zenbatekoari gehituko zaizkio espero direnean etorkizunean etekin ekonomikoak edo zerbitzuaren etekin potentzial gehigarriak jatorrian ebaluatu ziren aktiboentzat, hala nola:

- a) Elementu bat aldatzea bizi erabilgarria zabaltzeko edo produkzio-gaitasuna areagotzeko.
- b) Elementuaren osagaiak eguneratzea eskaintako produktuen edo zerbitzuen kalitatea nabarmen areagotzeko.
- c) Ekoizpen-prozesu berriekin hasia aurretik zenbatetsi diren eragiketa-kostuak nabarmen murrizteko.

Ibilgetu materiala konpontzera eta mantentzera bideratutako ordainketak gastu gisa onartuko dira ekitaldiko emaitzan, baldin eta jatorrian aktiboan zenbatetsita, etorkizuneko etekin ekonomikoak edo zerbitzuaren etekin potentziala lehengoratzeko edo mantentzeko egiten badira.

Ondorengo balorazioa.

Ibilgetu materiala ondoren baloratzeko, kostuaren eredu tratamendu orokorra jarraituko da. Hau da, hasiera batean aktibo gisa onartu ostean, ibilgetu materialaren elementu guztiak hasierako balorazioaren arabera kontabilizatuko dira, baina ondorengo ordainketak gehitu beharko zaizkio, kasuan-kasuan, eta kenduko zaizkie amortizazio metatua eta bizi erabilgarrian zehar izandako nariaduragatiko balorazio-zuzenketa metatua.

Amortizazioa.

Ibilgetu materialaren elementuak funtzionatzen hasteko prest daudenetik amortizatzen dira linealki kalkulatu den bizi erabilgarrian zehar, eta hondar-balioa nulua izango da bizi erabilgarriaren honako urte hauen arabera:

Deskribapena	Bizita erabilgarria	Urteko %
LUR ETA ONDASUN NATURALAK	0	0
ERAIKUNTZAK	50	2
AZPIEGITURAK:	25	4
ONDARE HISTORIKOAREN ONDASUNAK	0	0
MAKINERIA ETA TRESNERIA	10	10
INSTALAZIO TEKNIKOAK ETA BESTELAKO INSTALAZIOAK	10	10
ALTZARIAK	10	10
EKIPOAK INFORMAZIO-PROZESUETARAKO	5	20
GARRAIO-ELEMENTUAK	10	10
BESTELAKO IBILGETU MATERIALA	10	10

4) Higiezinak inbertsioak

Higiezin inbertsioak ibilgetu materialaren antzera tratatzen dira kontabilitatearen ikuspegitik.

5) Ibilgetu ukiezina.

Ibilgetu ukiezina kontabilizatzeko, ibilgetu materialaren onarpen- eta balorazio-irizpideei erreparatzen zaie.

Ibilgetu ukiezin honek ere amortizazio lineala du elementuaren bizitza erabilgarriaren arabera:

Deskribapena	Bizitza erabilgarria	Urteko %
IKERKETARAKO INBERTSIOA	4	25
GARAPENERAKO INBERTSIOA	4	25
INDUSTRIA-JABETZA ETA JABETZA INTEL.	4	25
APLIKAZIO INFORMATIKOAK	4	20
INBERT. ERRENT. LAG. AKTIBOETAN ERABILERA-ESKUBIDEAK	4	20
BESTELAKO IBIL. UKIEZINA: ESK. ERREALAK ETA AZAL. GAINEKOAK	4	25
BESTELAKO IBILGETU UKIEZINA: HAPO	4	25
BESTELAKO IBILGETU UKIEZINA: ERABILERA-ESKUBIDEAK	4	25

6) Errentamenduak.

Udalak ez du finantza-errentamenduko eragiketarik.

8) Finantza-aktiboak eta finantza-pasiboak.

8.1) Finantza-aktiboak

Sailkapena eta balorazioa

Finantza-aktiboak dira eskudirua, beste entitate bateko kapital edo ondare garbiko tresnak, hirugarrenaren eskutik eskudirua edo beste finantza-aktibo bat jasotzeko eskubideak ala hirugarren batekin finantza-aktiboak edo -pasiboak trukatzeko eskubideak balizko baldintza onuragarrietan.

Finantza-aktiboak baloratzeko, hona hemen sailkapena kategoriatan:

a) Kredituak eta partidak kobratzeke

Kategoria honen barruan honako hauek daude:

- Ohiko jardueraren ondoriozko eragiketengatiko kredituak.
- Beste finantza-aktibo batzuk; ez dira ondare-tresnak, eta ez dira merkatu aktiboan negoziatzen, baina zenbateko jakineko edo jakingarriko eskudiru-fluxuak sortzen dituzte entitateak ordaindutako guztia berreskuratzeko, kredituaren nariadurara egotz dakizkiokeen arrazoiak kanpo.
- Zor-tresnak eskuratzeko eragiketak, gerora, prezio finkoan edo hasierako prezioan gehi mailegu-emaiaren ohiko errentagarritasunean saltzeko akordioarekin.

Oro har, kobratzeke dauden kredituek eta partidek epemuga epe laburrean badute eta kontratuaren arabera interes-tasarik gabekoak badira, hasieran baloratuko dira, bai eta gero ere beren balio nominalaren baitan. Era berean, kobratzeke dauden partidek epemuga epe luzean badute eta epe luzeko maileguez diruz lagundutako interesak badituzte, hasieran baloratuko dira, bai eta gero ere, beren balio nominalaren eta entregatutako zenbatekoaren baitan, hurrenez hurren, kobratzeke dauden eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen ondorena esanguratsua ez denean. Bestela, arrazoizko balioaren baitan eta gero amortizatutako kostuaren arabera baloratuko dira. Gainera, sortutako interesak ekitaldiko diru-sarrerak izango dira interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz.

Nolanahi ere, fidantzak eta gordailuak betiere baloratuko dira entregatutako zenbatekoaren arabera, eguneratu gabe.

b) Inbertsioak epemugara arte eutsiak

Epemuga finkoko zorra adierazten duten baloreak eta zenbateko jakineko edo jakingarriko eskudiru-fluxuak sartzen dira kategoria honetan. Merkatu aktiboan negoziatzen dira, eta entitateak epemugara arte kontserbatzeko benetako asmoa eta finantza-gaitasuna du onesten dituenetik eta ondoren ere bai.

Kategoria honetako aktiboak arrazoizko balioaren baitan baloratuko dira eta gero amortizatutako kostuaren arabera. Gainera, sortutako interesak ekitaldiko diru-sarrerak izango dira interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz.

c) Finantza-aktiboak arrazoizko balioan emaitzak aldatuta

Kategoria honen barruan honako hauek daude:

- Finantza-aktibo hauek merkatu aktiboan negoziatzen dira, eta epe laburrerako eskuratzen dira, prezio finkoan edo hasierako prezioan gehi mailegu-emaiaren ohiko errentagarritasunean ondorengo salmenta-akordio baten bidez eskuratutakoak izan ezik.
- Eratorritakoak honako hauek salbu: finantza-bermearen kontratuak direnak edo estaldura-tresna gisa izendatutakoak eta, gainera, kontabilitate-estaldurak onartu eta baloratzeko arauaren eskakizunak betetzen dituztenak.

Kategoria honetako aktiboak hasieran baloratuko dira, bai eta ondoren ere arrazoizko balioaren arabera. Hala, transakzioko kostuak egotziko zaizkie ekitaldiko emaitzei, baldin eta zuzenean esleitzekoak badira. Arrazoizko balioa aldatzen bada, ekitaldiko emaitzei egotzeko, lehenik eta behin, interes-tasa efektiboaren arabera sortutako interesak eta, hala badagokio, aldaketaren aldeak egotziko dira.

Ondare-tresnen kasuan, hasierako balioan sartuko da harpidetzeko lehentasunezko eskubideen eta parekoen zenbatekoa.

d) Inbertsioak taldeko eta talde anitzeko entitateetan, bai eta entitate elkartuetan ere

Taldeko eta talde anitzeko entitateen eta entitate elkartuen finantza-aktiboak sartzen dira sektore publikoko urteko kontu bateratuak formulatzeko arauetan dagoen definizioaren arabera (138/2022 Foru Dekretua).

Taldeko eta talde anitzeko entitateen eta entitate elkartuen ondare-inbertsioak kostuaren arabera baloratuko dira hasiera batean (entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean esleiri dakizkiokeen transakzioaren kostuak) eta kostuari, bidezkoa bada, narriaduragatiko balorazioa zuzentzeko zenbateko metatuaren baitan gerora.

Hasiera batean, partaidetzak toki-administrazioari egokitzen zaion kontabilitate publikoari buruzko plan orokorraren 18. arauko 4. apartatuaren eta 19. arauaren arabera baloratu dira taldeko eta azpitaldeko gainerako entitateetan nahiz gainerako entitate elkartuetan, zehazki:

- Toki entitateek mendeko erakundeei edo atxikitako unean atxikitako ondasunen balio baliokidean lotutako erakundeei egindako ekarpenen zenbatekoa ondasunak atxikitzearen kontzeptupean.
- Toki entitateek mendeko erakundeei edo atxikitako unean lagatutako ondasunen balio baliokidean lotutako erakundeei egindako ekarpenen zenbatekoa ondasunak lagatzearen kontzeptupean.
- Hasierako zuzeneko ondare-ekarpenen zenbatekoa eta ondorengo gehikuntzak lotutako erakundeen eskumen berriak bereganatzeagatik.

e) Finantza-aktiboak salmentarako prest

Kategoria honetan sartzen dira finantza-aktiboak aurreko kategoriaren batean sartzeko baldintzak betetzen ez badituzte.

Kategoria honetako aktiboak hasieran baloratuko dira, bai eta gerora ere arrazoizko balioaren arabera. Arrazoizko balioa aldatzen bada, zuzenean erregistratuko da ondare garbian finantza-aktiboa besterendu edo narriatu arte. Une horretan, hain zuzen ere, egotziko zaie emaitzei.

Ondare-tresnen kasuan, hasierako balioan sartuko da harpidetzeko lehenetsuneko eskubideen eta parekoen zenbatekoa, eskuratuz gero.

Onartzea

Finantza-aktiboak kontratuan edo akordioan ageri den datan onartuko dira kontabilitatearen ikuspegitik, eta, harrezkero, entitateak eskubidea eskuratuko du. Orokorrean, transakzioen kostuak ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio, salbuespen batekin: magnitudea dela eta, gomendatzen denean finantza-aktiboaren balioan sartzea. Aktibo ez-korrontetzat joko da epemuga

urtebetetik gorakoa denean, eta korrontea izango da epe hori laburragoa denean.

Narriatzea

Kobratzeke dauden kredituen eta bestelako partiden kasuan, ikuskapen egokiak egingo dira gutxienez ekitaldia ixtean balioa narriatzeagatik balorazioa zuzendu behar den jakiteko: objektibotasunez argi dago kontabilizatutako zenbatekoak ez direla oso-osorik kobratuko edo komeni da itzultzea dagoeneko egokiak ez direlako. Balio-zuzenketak eta itzulerak onartuko dira ondare-emaizta ekonomikoaren kontuan.

Eskubide publikoak sartzeagatiko zorren balioari dagokion narriadura kalkulatzeko, bilketaren ehunekoak kontuan hartuko dira ekitaldi desberdinetako serie historiko errealetatik abiatuta.

Aurreko idatz-zatian azaldutakoaren salbuespen gisa, dirulaguntzak badira, ez da narriatzeagatiko zuzenketarik aplikatuko, eskudirua sartzen den une berean onartzen denez, ez baitago zenbatekorik kobratzeke ekitaldia ixtean.

Oro har, kobratzeke dauden kredituak ez dira narriatzen erakunde publikoek emandako dirulaguntzei badagozkie. Gauza bera gertatzen da dagozkien ehunekoetan bermatutako kredituekin.

Epemugara arte mantendu diren inbertsioen kasuan, udalak narriadurak erregistratzeko, honako hauen arteko aldeari erreparatuko dio: batetik, kobratzeke dauden kontuetatik berreskuratu behar zen zenbatekoa eta, bestetik, liburuetan erregistratuta dagoen balioa.

Ondare-tresnek beren jatorria ondare-funtsen ekarpenetan badute, balorazioaren zuzenketa-zenbatekoa zehazteko, zenbateko berreskuragarria hartuko da kontuan, hau da, zenbatekorik handien honako hauen artean: arrazoizko balioa ken salmenta gastuak eta eskudiru-fluxuen oraingo balioa, inbertsioaren ondoriozkoa dena. Zenbateko berreskuragarriaren ebidentzia hobeagorik izan ezean, inbertsio horien narriadura estimatzeko, partaidetzapeko entitatearen ondare garbiari erreparatuko zaio, eta isilbidezko gainbalioek zuzenduko dute balorazioaren datan.

Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak eta itzulera gastu edo diru-sarrera gisa onartuko dira, hurrenez hurren, ekitaldiko emaitzan.

Saltzeko prest dauden finantza-aktiboen kasuan, udalak halabeharrezko balorazio-zuzenketak egingo ditu. Xede horrez, aldea kalkulatu du, batetik, kostu edo kostu amortizatua ken narriatzeagatiko edozein balorazio-zuzenketa, hala badagokio, baldin eta aurretik onetsi bada ondare-emaizta ekonomikoaren kontuan eta, bestetik, arrazoizko balioa aktiboa baloratzen den unean.

Finantza-aktiboen baja

Udalak baja emango die finantza-aktiboei iraungi direnean edo finantza-aktiboaren eskudiru-fluxuaren gaineko eskubideak laga direnean eta jabetzari atxikitako arriskuak eta mozkinak nabarmenki eskualdatu direnean.

Finantza-aktiboen dibidenduak eta interesak

Udalak eskuratu ondoren erregistratuko ditu sortutako interesak eta dibidenduak ekitaldiko emaitza gisa.

8.2. Finantza-pasiboak

Finantza-pasibo bat da obligazio galdagarria eta baldintzarik gabekoa hirugarrenari eskudirua edo beste finantza-aktibo bat entregatzeko ala hirugarrenarekin finantza-aktiboak edo -pasiboak trukatzeko balizko baldintza desfaboragarrietan.

Finantza-pasibo guztiak kostu amortizatuko finantza-pasiboen kategorian sailkatzen dira baloratzeko. Hona hemen kategorian sartzen direnak:

- Ohiko jardueraren ondoriozko eragiketengatiko zordunketak eta partidak ordaintzeke.
- Igorritako balore negoziagarrien bidez adierazitako zorrak.
- Zorrak kreditu-erakundeekin.
- Beste zordunketa eta partida batzuk ordaintzeke.

Oro har, ordaintzeke dauden zordunketek eta partidek epemuga epe laburrean badute eta kontratuaren arabera interes-tasarik gabekoak badira, hasieran baloratuko dira, bai eta gero ere beren balio nominalaren baitan. Era berean, ordaintzeke dauden epe luzeko partidek eta maileguk diruz lagundutako interesak badituzte, hasieran baloratuko dira, bai eta gero ere, beren balio nominalaren eta jasotako zenbatekoaren baitan, hurrenez hurren, ordaintzeke dauden eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen ondorea esanguratsua ez denean. Bestela, arrazoizko balioaren baitan baloratuko dira hasieran eta kostu amortizatuaren arabera gero, sortutako interesak onartuz interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz.

Jasotzen diren fidantzak eta gordailuak betiere baloratuko dira jasotako zenbatekoaren arabera, eguneratu gabe.

Onartzea

Finantza-pasiboak kontratuan edo akordioan ageri den datan onartuko dira kontabilitatearen ikuspegitik, eta, harrezkero, entitateak obligazioa izango du. Diruzaintzako eragiketak kreditu-polizaren bidez formalizatzen badira, funtsen ondoko ondoko eskuragarritasunak jasotzen direnean sortuko dira obligazioak. Pasibo ez-korrontetzat joko da epemuga urtebetetik gorakoa denean, eta korronea izango da epe hori laburragoa denean.

Finantza-pasiboen baja

Orokorrean, udalak baja emango dio finantza-pasibo bati pasiboak eragindako obligazioa bete edo kitatu denean, eta, ondorioz, erregistratu denean ekitaldiko emaitzan aldea bajaran eman den finantza-pasiboaren kontabilitate-balioaren eta entregatutako kontraprestazioaren artean.

9) Kontabilitateko estaldurak.

Udalak ez du kontabilitateko estaldurak kontratatuta.

10) Izakinak.

Udalak ez du erantsitako balantzeko "Izakinak" epigrafean sailkatutako aktiborik.

11) Beste entitate batzuetarako eraiki edo eskuratutako irizpideak.

Udalak ez du aktiborik eraiki edo erosi beste erakunde batzuentzat.

12) Transakzioak atzerriko monetan.

Udalak ez du atzerriko monetan transakziorik egiten.

13) Mozkinen gaineko zerga.

Konsolidatzen duten entitateetako batek ere ez du sozietateen gaineko zerga ordaindu behar.

14) Sarrerak eta gastuak.

Diru-sarrerak eta gastuak sortzapen-irizpidearen arabera erregistratuko dira, diru-sarreraren eta gastuen diru- eta finantza-korrontea noiz gertatzen den bazterturik, eta diru-sarreraren eta gastuen arteko korrelazioaren arabera egokia denean.

Gastuak eta diru-sarrerak aurrekontua gauzatzearen ondoriozkoak badira, eskubideak eta obligazioak onartzeko administrazio egintzak ematen direnean onartuko dira, hurrenez hurren.

a) Diru-sarrerak kontraprestazioarekin

Oro har, diru-sarrerak kontraprestazioa badute, onartuko dira zenbatekoa fidagarritasunez neur daitekeenean eta entitateak transakzioarekin lotutako etekin ekonomikoak edo zerbitzuaren etekin potentzialak jasotzeko aukera handia duenean.

Baloratuko dira jasotako edo jasotzeke dagoen ordainaren arrazoizko balioaren baitan, hau da, ondasunak edo zerbitzuak jasotzeko hitzartutako prezioa ken itzulerak, beherapenak, deskontuak eta balio erantsiaren gaineko zerga, hala badagokio.

Gainera, saltzeagatiko diru-sarrerak erregistratuko dira honako inguruabar hauek betetzen direnean: entitateak erosleari ondasunaren jabetzaren ondoriozko arrisku eta abantaila esanguratsuak eskualdatu dizkio, jabetzaren legezko titulua laga edo ez lagatzearen kalterik gabe; entitateak ez du inplikaziorik izango saldutako ondasunaren ohiko kudeaketan, egiazko kontrolik izan gabe; eta transakzioaren gastuak fidagarritasunez neurtu ahalko dira.

Zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerak onartuko dira transakzioaren emaitza fidagarritasunez zenbatetsi daitekeenean, kontuan hartuta prestazioaren aurrerapen edo egite maila urteko kontuen datan, hau da, prestazioaren aurrerapen edo egite maila fidagarritasunez neur daitekeenean urteko kontuen datan, eta dagoeneko ordaindu diren prestazioaren kostuak eta ordaintzeke daudenak fidagarritasunez neur daitezkeenean.

Zerbitzuak epe zehatzean ematen direnean, diru-sarrerak linealki onar daitezke epe horren barruan, eta transakzioaren emaitza ezin denean modu bideragarrian zenbatetsi, diru-sarrerak onartzeko bakarrik kontuan hartuko da berreskuragarritzat jotzen diren gastu onartuen zenbatekoa.

b) Diru-sarrerak kontraprestaziorik gabe

Zergen kasuan, diru-sarrera eta aktiboa onartuko dira zerga-egitatea gertatu eta aktiboaren onarpen-irizpideak betetzen direnean.

Diru-sarrerak beren jatorria isunetan eta diru-zehapenetan badute, onartuko dira dirua biltzen denean edo kobratzeko eskubidea sortzen denean ezartzeko ahalmena duen entitatean.

15) Hornidurak.

Hornidura pasibo bat da zeinetan ziurgabetasuna sortzen den zenbatekoari edo epemugari buruz, pasiboaren jatorria baita legezko, kontratuzko edo erakundearentzat inplizitua den ordaintzeko obligazioaren gertaera oro, beraz, entitaterentzat aukera errealistena da zenbatekoa ordaintzea.

Hornidurak ordainketen balio eguneratuaren baitan baloratuko dira, kontuan hartuta obligazioa likidatzeko zenbat beharko den. Eguneratu beharko dira deskontu-tasa baten arabera, pareko epemugan zor publikoaren tasa baliokidea erreferentziatzen hartuta. Eguneratzearen ondorioz hornidurak doitu behar direnean, finantza-gastu gisa onartuko dira eguneratu behar diren bakoitzean. Epemuga urtebetekoa edo hortik beherakoa denean, ez da deskonturik egingo, baldin eta finantza-ondorea esanguratsua ez bada.

Gutxienez ekitaldi bakoitza ixten denean, hornidurak ikuskatu eta, bidezkoa bada, doitu dira estimaziorik onena adierazteko une horretan. Etekin ekonomikoak edo zerbitzuaren etekin potentzialak izango dituzten baliabideak irteteko aukerarik ez dagoela uste denean, hornidura itzuliko da kitatzeko, eta diru-sarreraren kontu bat erregistratuko da ekitaldian.

Hornidurak honako hauen arabera baloratuko dira: barneko txostenak, esperientzia antzeko eragiketetan eta, bidezkoa bada, kanpoko adituen txostenak.

16) Transferentziak eta dirulaguntzak.

a) Transferentziak eta emandako dirulaguntzak

a.1) Diruzkoak: Transferentziak eta emandako dirulaguntzak gastu gisa kontabilizatuko dira jasotzeko baldintzak bete direla jakiten denean, aurrekontuan egoztearen kalterik gabe.

Ekitaldia ixten denean, jasotzeko baldintzaren bat betetzeke dago, baina ez da ageri arrazoizko zalantzarik etorkizunean betetzeari buruz. Halakoetan, zenbatekoen hornidura egingo da gastua azaltzeko.

- a.2) Diruzkoa ez direnak edo espezieetan egindakoak: Aktiboak entregatzen badira, onuradunari ematen zaizkionean onartuko da transferentzia edo dirulaguntza.

b) Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.

- b.1) Transferentziak: Jasotako transferentziak diru-sarrera gisa onartuko dira, eta onartzen diren ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio.

Diru-transferentziak diru-sarrera aurrekontuan erregistratzearekin batera onartuko dira. Hala eta guztiz ere, lehenago onar daitezke, betiere jasotzeko baldintzak bete badira.

Espezietan jasotako transferentziak ondasuna jasotzen denean onartuko dira.

- b.2) Dirulaguntzak:

Dirulaguntza itzulgarriak pasibo gisa erregistratuko dira ez-itzulgarritzat jotzeko baldintzak betetzen direnera arte; bien bitartean, dirulaguntza ez-itzulgarriak diru-sarrera gisa erregistratuko dira, eta zuzenean egotziko zaizkio ondare garbiari. Diru-sarrera gisa onartuko dira, oinarri sistematiko eta arrazional batekin, dirulaguntzaren ondoriozko gastuekin korrelazioan.

Xede horrez, dirulaguntza ez-itzulgarria izango da dirulaguntza emateko banako akordioa dagoenean, emateko baldintza guztiak bete direnean eta jasotzeko arrazoizko zalantzarik ez dagoenean, aurrekontuari egotzea gorabehera.

Jasotzen diren dirulaguntza ez-itzulgarriak, diruzkoak edo espezieetan egindakoak, emaitzei egotziko zaie honako modu honetan:

- Gastuak finantzatzeko dirulaguntzak: Finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldi beraren emaitzari egotziko zaizkio.
- Aktiboak erosteagatiko dirulaguntzak: Ekitaldi bakoitzeko emaitzari egotziko zaizkio ondasunaren bizitza erabilgarriaren proportzio berean, eta elementuak amortizatzeke hornidura-metodo bera erabiliko da. Bestela, besterendu edo inbentariotik baja ematen diren ekitaldian egotziko zaio emaitzari.
- Aktiboak amortizagarriak ez badira, oro har, diru-sarrera gisa egotziko dira besterendu edo inbentariotik baja ematen diren ekitaldian.
- Dirulaguntzak pasiboak kitatuta: orokorrean, kitatzen diren ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio.

17) Baterako jarduerak.

Udalak ez du parte hartzen beste partaide batzuekin batera jarduera ekonomiko bat abiarazteko akordioa dakarren jarduera bateraturik.

18) Salgai dauden aktiboak.

Udalak ez du salgai dagoen aktiborik.

19) Etendako eragiketak.

Ez dago etendako eragiketarik.

Memoria consolidada

1. Entidades del grupo.
2. Entidades multigrupo y asociadas.
3. Información de los subgrupos de entidades.
4. Bases de presentación de las cuentas anuales consolidadas.
5. Normas de reconocimiento y valoración.

1. ENTIDADES DEL GRUPO.

a) Entidad dominante.

La Entidad Dominante del presente grupo de entidades es el Ayuntamiento de Getxo. El Ayuntamiento de Getxo es una administración pública local compuesta por cargos electos y equipos profesionales al servicio de la ciudadanía.

Las cuentas anuales consolidadas adjuntas incorporan los estados financieros de las entidades controladas por el Ayuntamiento de Getxo, directa e indirectamente, el 31 de diciembre de cada ejercicio. El control se considera ostentado por la Entidad Dominante cuando ésta tiene el poder de establecer las políticas financieras y operativas de sus participadas, con la finalidad de obtener rendimientos económicos o potencial de servicio.

b) Entidades dependientes.

Las entidades dependientes de este grupo de entidades son las siguientes:

- Organismo Autónomo Aula de Cultura
- Organismo Autónomo Getxo Kirolak
- Organismo Autónomo Escuela de Música
- Organismo Autónomo Residencia Municipal
- Sociedad Puerto Deportivo El Abra Getxo, S.A.
- Fundación Punta Begoña

Organismo Autónomo Aula de Cultura

El Ayuntamiento de Getxo creó el Organismo Autónomo local “Aula de Cultura de Getxo” para el cumplimiento de sus finalidades que se concretan en sus Estatutos, cuyo texto fue aprobado por el Pleno el 25 de junio de 2004.

El Organismo Autónomo Local “Aula de Cultura de Getxo” tiene como finalidad:

- a) Desarrollar y promover cualquier actividad cultural, científica y artística, prestando especial atención a todas las manifestaciones de la vida cultural vasca y desarrollo y recuperación del euskera.
- b) Ayudar a potenciar las iniciativas culturales de los distintos grupos del municipio, fomentando la participación ciudadana en todos los ámbitos culturales.
- c) El desarrollo y gestión del Euskaltegi Municipal, dependiente de HABE, creado bajo el patrocinio de la hasta ahora Fundación Pública de Servicio Aula de Cultura de Getxo.

Organismo Autónomo Getxo Kirolak

El Ayuntamiento de Getxo creó el Organismo Autónomo Local que se denomina Getxo Kirolak, para el cumplimiento de sus fines que se concretan en sus Estatutos, cuyo texto fue aprobado inicialmente por pleno el 30 de diciembre de 2004 y definitivamente el 23 de marzo de 2005.

El Organismo Autónomo Local “Getxo Kirolak” tiene como finalidad:

- a) La gestión, organización y funcionamiento de todas las infraestructuras, instalaciones y equipamientos deportivos que le sean adscritos por el Ayuntamiento de Getxo.

- b) La promoción y fomento de la práctica deportiva y de la competición deportiva, así como el desarrollo de la cultura física, de salud y recreativa o cualesquiera otras actividades de su ámbito de su competencia.

Organismo Autónomo Escuela de Música

El Organismo Autónomo local “Escuela de Música Municipal Andrés Isasi” de Getxo fue creado por el Ayuntamiento de Getxo el 24 de septiembre de 1986.

La “Escuela de Música Municipal Andrés Isasi” de Getxo, tiene como finalidad:

- a) El fomento y promoción de la Cultura Musical en el Municipio de Getxo.
- b) La colaboración con otras Organizaciones Musicales en la tarea de la difusión de la música y el desarrollo de la afición musical.
- c) El cultivo de los valores musicales que puedan descubrirse, a los que apoyará de acuerdo con las posibilidades del momento.
- d) La ayuda a conjuntos musicales y corales que realicen o vayan a realizar una labor de interés dentro de la citada finalidad genérica.
- e) La organización de cuantas actividades puedan redundar en beneficio de la música.

Organismo Autónomo Residencia Municipal

El Ayuntamiento en Pleno en sesión celebrada el día 28 de septiembre de 1968 creó la Fundación Pública del Servicio Asistencial, mediante el reconocimiento de la Residencia del Sagrado Corazón de Jesús de Getxo, a la que dota personalidad jurídica, siendo el texto original de sus Estatutos aprobados definitivamente en sesión plenaria de 03 de junio de 1969.

Es objeto fundamental del Organismo, la atención residencial de las personas mayores que reuniendo los requisitos aprobados al respecto, sean admitidas en la Residencia Municipal, ofreciendo a estas personas mayores un ambiente convivencial adecuado para su desarrollo personal, contribuyendo al mantenimiento y mejora de su bienestar físico, psíquico y social y fomentando su integración y participación en la vida social.

Sociedad Puerto Deportivo El Abra Getxo, S.A.

La sociedad Puerto Deportivo El Abra-Getxo, S.A., se constituyó como sociedad anónima el 29 de diciembre de 1992, con capital público aportado por el Ayuntamiento de Getxo, la Diputación Foral de Bizkaia y la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Tiene por objeto social la planificación, promoción, desarrollo y explotación de puertos deportivos, por sí, en calidad de concesionario, o mediante la cesión de los derechos que correspondan a terceros.

La Autoridad Portuaria de Bilbao, con fecha 22 de diciembre 1994, otorgó a la empresa la concesión administrativa necesaria para construir y explotar el puerto deportivo de Getxo, por un plazo de treinta años, y con la contraprestación económica del pago de un canon anual. Esta concesión ha sido prorrogada por el citado organismo hasta el 4 de enero de 2040.

